

bidegileak



Mikel Garmendia (1945-2005)

Egilea:

NEREA AZURMENDI

*U*rte gutxi eman zizkion tamalez Mikel Garmendiak aktore lanari; hogei bat, goizegi itzali zen 60 urteko bizitzan. Berrogeiak hurbil zituen umetatik bila zebilen bidea aurkitu eta, azkenean, erabat eroso sentitzen zen tokira heldu zenerako. Taula gainean eta kameraren aurrean igaro zituen bi hamarkadetan, ordea, askok bi bizialditan nekez aterako lioketen zukua atera zien lanbideari eta, seguruenik, baita bizitzari berari ere.

Berantiarra ez ezik, bitxia ere izan da Mikel Garmendiaren karrera. Protagonista rolik sekula egin gabe, bere egin ditu, menderatu arte, parte hartu duen



Mikel Garmendia Agirre (1945-2005)

zenbait film, antzezlan eta telebista-saio. «Ez daukat ez aurpegirik, ez ahotsik, ez teknikarik, ezta gorputz mardulik ere...» esaten omen zuen, lortutako arrakasta ezin ulertuaren plantaginez. Inguruan zuenari adi-adi begiratzen zion gizon azkarra izanik, jakingo zuen seguruenik eskuzabaltasuna, apaltasuna, komunikaziorako gaitasuna eta, oro har, xarma, edertasuna eta liraintasuna baino askoz ere dohain garrantzitsuagoak direla ikuslearen begirada erakartzeko eta begira dagoena limurtzeko.

Honakoa idatzi zuen Amatiñok Mikel Garmendia zendu eta egun gutxira: «Segurutik Mikel Garmendiak islatzen du inork baino hobeto sekula izan den lehen euskal aktore-aktorea profesionalen belaunaldia. Bai, behar bada, berandu samar ekin ziolako, baina baita lanbidearen errutinari ere gogotsu atxiki zitzaiolako..., berezko guztien gaintetik eta vedettismo guztien azpitik». Bidegilea, inondik ere.

Izaera eta goitizena

Ordizia Villafranca de Oria zela jaio zen, 1945eko urtarrilaren 22an, Migel Angel Garmendia Agirre, aurreko urtean ezkonduko Manolo eta Anttoniren aurreneko semea. Oso ezaguna zen herrian Manolo Garmendia *Kutturru*, etorri handiko arrain-saltzailea, txantxetan ibili zalea. Izaera ez ezik, goitizena ere jaso zuen aitarengandik etxekoentzat beti Miellanjel izango den Mikel Garmendia *Kutturruk*, hark bere aitarengandik jaso zuen bezalaxe, Ikaztegietaiko sortetxearen izena familiako gizonezko gehienengana zabaldu



1944. urtean ezkondu ziren gurasoak



Eta urtebetera jaio zen Mikel



Dantzarako prest



Honakoxea zen Mikel Garmendia txiki-txikitan

baitzen. Arrain salmentan aitona zen hasia, karroari bultzaka, arrandegirik gabe, plazan egurrezko postua jarrita. Soldadutzatik bueltan alokairuan hartu zuen arrandegia Manolo Garmendiak Ordiziako plazan bertan, eta hantxe jarri zuen oraindik irauten duen negozioa. Huraxe izan zen Mikelen eta mutikoa bost urte betetzear zela familia osatzera etorri zen Maixabel arrebaren umetako giroa; eguneroko martxa eta, asteazken goizean, azoka egunetako giro bizi-bizia.

Jaio ere leku animatuan jaio zen, herriko aisialdi-toki nagusia zen zumardiaren ondoko Beakoetxen, herriko pilotalekuaren parean. La Salleko fraideekin egin zituen aurreneko ikasketak Mikel Garmendiak. Balio zuen ikasteko, txikitatik zeukan mutiko azkarrak gerora gidoiak egun batetik bestera ikasteko edukiko zuen trebezia. Ez zen, haatik, ikasle saiaturia, ahalegintzeko norbait beti bultzaka behar zuen horietakoa baizik. Makina bat lan izan zuten gurasoek gogokoak ez zituen gauzetan gehiegi saiatzen ez zen mutikoa fundamentuzko ikasle izan zedin!

Gauza gehiegik erakartzen zuten alegia mutikoaren arreta bakar batean zentratzeko. Berrikuntza guztiek liluratzen zuten, eta haietan murgiltzen zen buru-belarri harik eta berriago batek aurrekoekiko interesa motel-tzen zion arte. Ipurtarin samarra izan arren, nota bikainak ateratzen zituen, eta haizeren batek jotzen zuenean sekulakoak ziren aiurri biziko mutikoaren haserrealdiak. Piztu bezain



Arreba Maixabel eskutik duela, zintzo eta serio

pronto itzaltzen zitzaizkion, ordea, eta ziztu batean hartzen zion gaina une bateko sualdiari barrenean zeraman on hutsak...

Aurrekulari jantziz ikus dezakegu Mikel txiki-txikitako zenbait argazkitan. Dantzari bikain eta dotorea zen gaztetxotan, aurrekulari fina. Hamabost urte ingurukoa zela, musikak hartu zuen dantzaren tokia. Laguntasuna errondaila sortu zen herrian 60ko hamarkadaren hasieran, eta hura oso gogoko zuela esanez azaldu zen etxean. Gurasoak ere musika zale izanik, ez zioten batere eragozpenik jarri, eta halaxe hasi zen herriko errondailan bandurria jotzen. Hortxe azaltzen da argazkietan,



Eskolako lagunekin. Ikasle azkarra zen, nahiz eta ez izan saiatuena

serio eta ingurukoak baino gazteago, zuzendariaren alboan. Ibili zen buru-belarri bolada batez bandurria-jole, dantzari ibili zen moduan, entseguak-eta nekagarri egin zitzaizkion arte. Haserrealdiak bezalaxe pizten zitzaizkion ilusioak, berebizikoak; baretu ere, igoaltsu. Izan ere, Miellanjel gaztearentzat obligazioa eta derrigorra ziren afizioaren eta ilusioaren aurkako antidotorik eraginkorrenak.

Etxean, gainera, lan franko zegoen, eta arrandegian laguntzeaz gain bazuen bere burua ofizioaren batean trebatzen hasteko garaia. La Salletik irten eta CAF lantegiko lanbide eskolan egin zuen batxilergoa. Doitzaile ofizioa ikasi zuen gero «fabrika handian» bertan, baina Mikel Garmendia ez zen bizi osoan ajustadore lanetan ibiltzeko sortua.



Aureskulari trebea zen Mikel gaztetan



Bandurria jotzen zuen Laguntasuna errondailan zuzendariaren ondoan azaltzen den Mikelek



Urte askoan, hutsik egin gabe hartu zuen parte
Ordiziako jaietako danborradan

Ez zen Mikel gaztea izaki lotsati eta isil horietakoa. Herrian ziren festa giroko ekimen guztietan hartzen zuen parte, eltze gehientzuenetako burruntzalia zen, bere tankerako gazte animatuz osatutako koadrilako kideekin batera. Ondo baino hobeto zeraman, alde horretatik, aitonarengandik eta aitarengandik jasotako *Kutturru* goitzenaren alderdirik ludioena. Urte askoan, besteak beste, Ordiziako jaietako osagai berezietakoa den goizaldeko danborrada zuzendu zuen. Seriotasun handiz hartu zuen bere gain ardura hura, eta utzi egin zuen danborrada hasiera bateko seriotasuna galtzen hasi zenean.

Une horretara heldu aurretik, ordea, garrantzi handiko uneak bizi behar izan zituen Mikel, garratzak zein gozoak. Hemezortzi urteren bueltan izan zuen, esaterako, aurreneko harremana antzerkiarekin. Baziren aurretik herrian tarteka antzezlaren bat prestatzen zuten zaleak, eta umetan behin baino gehiagotan egoten omen zen adi-adi Mikel haien entseguei begira, baina oholtzara lagunartean osatutako taldetxo baten eskutik igo zen estreinako. Euskarazko antzerkiari sekulako bultzada eman zion Maria Dolores Agirrek euskaratua zuen ordurako Alejandro Casonaren *La barca sin pescador* antzezlana, eta

Txalupak jaberik ez hura taularatzea erabaki zuten ordiziarrek. Ikusleen grina ez zen bat etorri ekimenaren sustatzaileek zutenarekin, eta aparteko arrakastarik gabeko emanaldi bakarra eskaini zuten; Mikel Garmendiaren barrunbeetan harra berpizteko nahikoa, edonola ere.



Etetik gertu egin zuen Mikel Garmendiak aparteko konplikaziorik gabeko soldadutza, Irunen

Aurreneko saio haiek baino askoz dramati-koagoak izan ziren, haatik, Garmendia anai-arreba gazteek urte gutxiren buruan jasan

zituzten galerak. Aita hil zitzaizen lehenik, Mikel 18 urte zituela. Bakarrik gelditu zen ama arrandegian, eta ezinbestekoa bilakatu zen semearen laguntza negoziolari eusteko. Aita hil eta hiru urtera, ama ere galdu zuten, eta Kontxita izeba bilakatu zen Mikelen eta Maixabel arrebaren «bigarren ama».

Soldadutzarako garaia heldu zitzaionean zorteko izan zen, etxetik asko urrundu gabe eta ia astero bisita egiteko moduan igaro baitzitu- en, Gasteizen aurrena eta gero Irunen, ar- madari ezinbestean eman beharreko hila- beteak. Soldadutzako argazkietan aktore karrerako aurreneko urteetan azalduko zuen gorpuzkera sendoaren lehen zantzuak igar- tzen zaizkio uniformearen azpian ume eta gaztetxotan kilo askorik soberan ez zeukan Mikel Garmendiari. Kontu-kontalari trebea zenak, bestalde, ez omen zituen gehiegi zi- gortzen ingurukoak soldadutzako kontuekin, baina entzundakoetatik badakite jendeare- kin konektatzeko zuen gaitasun ukaezinak ez ziola hutsik egin milizia-giroan; botak jan- tzen eta garbitzen laguntzen zion kiderik ere ba omen zuen, eta ez propio mailak horretarako eskubiderik ematen ziolako, jendearekiko ha- rremanetarako zuen ukitu magikoak horrelako ondorio praktikoak ere bazituelako baizik.

Soldadutzatik bueltan, arrandegian hasi zen la- nean, baina argi zegoen ordurako bere bidea ez zuela ezkata artean aurkituko. Segituan hasi zen biajante, eta batetik bestera saltzaile zebilela ezkondu zen, 26 urte zituela. 1971n



ezkondu ziren Mikel eta Regina; 1972an jaio zen Edurne, alaba zaharrena, eta 1973an Mikel semea. Ordiziatik irten eta Donostian jarri zen bikote gaztea, seme-alabak artean ume-umeak zirela. Eta hamar bat urte eman zituzten horrela, familia sortu berriei dagozkien egonkortze lanetan, harik eta Mikelek, halako batean, aspaldi bila zebilen bidera bilduko zuen iragarkia entzun zuen arte.

Izeba Kontxita, Mikelen eta arrebaren «bigarren ama»



Ama, arreba, aita eta Mikel bera. Tamalez, gazterik galdu zituzten gurasoak

Zorioneko iragarkia

Ordu asko ematen zituen autoan Mikel Garmendiak. Biajante hitzak indarra galdu du azkenaldian munta handiagoko deituren mesedetan, baina etengabeko bidaietan zetzan, funtsean, itxura batez bizi osorako zuen ofizioak.

Halako batean, kotxea aparkatzeko toki bila zebilela, gerora errebelazio kutsua hartuko zuen iragarki bat entzun zuen irratan: Eusko Jaurlaritza sortzekoa zen antzerki eskola baterako ikaslegai bila zebiltzan.

80ko hamarkadaren hasieran, profesionalak prestatzeko ez ezik antzerki ekoizpen iraunkorra bermatzeko sor-



Ezkontza baterako dotore asko jantzitako Mikel gazteak bazekien ordurako kamera erakartzen

tu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Arte Dramatiko Zerbitzua. 1979an onartutako Autonomia Estatutuaren ondotik, 1980an Carlos Garaikoetxea lehendakari zuen Eusko Jaurlaritzak kulturaren sustapenaren eta euskararen berreskurapenaren alorrean abian jarri zituen ekimenen artean kokatu zen bete-betean Antzerti, garai bertsukoak diren Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Euskal Irrati Telebistarekin, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundearekin



Familia oso-osoa. Mikel eta Regina emaztea, Edurne eta Mikel seme-alabekin batera

eta besterekin batera. Hamarkada amaitzear zenerako kili-kolo zebilen azkenean bertan behera geratu zen Antzerti, baina hasiera batean kementsu ekin zion ibilbideari. Esan bezala, profesionalak prestatzeko eskola zen batetik; bestetik, «konpainia nazional» halako bat sortzeko bidea eman zezakeen ekoizpen-zentroa. Sortu eta urte gutxira desagertu bazen ere, han ikasitakoak dira azken urteotako euskal aktore ezagunen arteko gehientsuenak, Mikel Garmendia barne.

Lehenbiziko promozioa osatzeko deialdiari zegokion iragarkia entzun zuen Mikel Gar-

mendiak, eta ideia buruan dantzan zerabilela heldu zen egun hartan etxera. «Zer irudituko litzaizueke antzerki eskola batean hasiko banintz?» galdetu zien etxekoei. Bizimoduari halako buelta emateko ez zuen Mikelek unerik aproposena hautatu. Txikiak ziren artean seme-alabak; orduantxe zeukaten hartuta etxe berria; gela ugariko etxe handia izanik, ikasleak zeukaten apopilo eta, emazteak ere etxetik kanpo lan egiten zuenez, bazegoen lan franko etxea eta familia aurrera ateratzeko. Aspaldi bila zebilen aurrean zeukala pentsatuz-edo, joan zen 115 kiloko eta 36 urteko Mikel Garmendia hautaketa-probetara. Laurogeita hamabost lagun, hogeita hamar leku betetzeko. Gehienak, hogeitaz inguruko gazteak. Salbuespen bakarretakoa, gerora lagun min izango zuen Kontxu Odriozola.

Haren omenezko liburu batean kontatu zuen Mikel Garmendiak bere hitzekin bizi osorako izango zuen lanbidearekin izan zuen aurreneko harremana:

1982ko udako egun hartan, aktore izateko egin zen deialdira bildu ginenon artean gehienak gazteak ziren, nire asmo berberekin bertara bilduak, eta nire lehendabiziko asmoa ihes egitea izan zen. Hala ere, bertan zeuden gizonezko guztiak ni baino askoz gazteagoak izan arren, jabetu egin nintzen bazeudela aktore izan nahi zuten emakumezko batzuk, gutxi gorabehera nire adinekoak, eta horrexegatik erabaki nuen bertan geratzea.



Ordiziako pilotalekuan, ondo trajeatutako hirukotea.
Ezkerrekoa da Mikel

Hemezortzi urte zituela jaioterrian egindako saio hura zen Mikelek probetara eraman zuen esperientzia bakarra. Gainerakoak ere ez ziren esperientzia handiko aktoreak. Mikel probak gainditu eta eskolan gelditu zenetakoa izan zen. Aurrerantzean ere, parte hartzen zuen proba edo *casting* gehienetan hartuko zuten, gehienak urduri jartzen zirenetan lasaitasunari eustea baitzen Mikel Garmendiaren dohain nagusietako bat.

Aurreneko lanak

Mikel Garmendiaren promozioko zenbait ikidek 1984. urtean jaso zituzten lau ikasturteko ibilbidea burutua zutela ziurtatzen zuten diplomak. Diplomadun edo diploma gabeko, Antzerti eskolako lehen labealdi hartakoak dira, besteak beste, Eneko Olasagasti, Ramon Agirre, Karlos Zabala, Elena Irureta, Klara Badiola, Kontxu Odriozola, Agus Arrazola, Arantxa Gurmendi, Patxi Santamaria, Isidoro Fernandez... «Gazte» haiekin batera hasi zitzaion Mikel hurbiltzen ordura arte ezezaguna zuen munduari. Aurreneko urtean, goizak eskaintzen zizkion eskolari, saltzaile lana erabat utzi gabe. Bigarren ikasturtean, erabateko dedikazioa eskatu zieten aurrera jarraitu nahi zutenei, eta Mikelek ez zuen atzera egin. Erabat murgildu zen eskolako eginkizunetan, etxeko obligazioak ahaztu gabe betiere, bizi osoan asmatu baitzuen Mikelek oreka horri eusten.

Eskarmentu eta izen handiko irakasle batek lanik gabe sekula ez zela geratuko esan omen zion. Bete-betean asmatu zuen, aktore egin zenetik ez baitzen inoiz egon lan faltan. Eskolan zebilela egin zituen aurrenekoak. Antzertik berak, batetik, zenbait obra ekoitzi zituen aurreneko urteetan: *Antigona*, Jean Anouilh-en bertsoan; Euripidesen *Troiarrak*; Carlo Goldoniren *Arlekino, bi nagusiren zerbitzari*... Gaztelaniazko eta euskarazko bertsioko bikoitzean prestatzen zituzten lan haietan hasi ziren Mikel eta ikaskideak eskarmentua hartzen.

Aurreneko filmak ere berehala heldu ziren. Urte haietako gorpuzkera sendoari ondo egokitzen zitzaizkion lanak iritsi zitzaizkion lehenik. Abadearena egin zuen hurrenez hurren 1983an eta 1984an estreinatu ziren Alfonso Ungríaren *La conquista de Albania-Albaniaren konkista* eta Pedro Olearen *Akelarre* filmetan. Arantxa Urretabizkaiaren gidoi batean oinarritutako *Albaniaren konkista* drama historikoko kreditu-tituluetan Xabier Elorriaga eta Klara Badiolarenzat dira toki nagusiak, baina zerrendan behera eginez gero hor azaltzen dira, besteak beste, Patxi Bisquert, Ramon Barea, Paco Sagarzazu, eta Mikel bera. Aktoreen zerrendako buruengandik urruti samar zegoen *Akelarren* ere. Rola bigarren mailakoa izanagatik, *Akelarreko* abadea sekuentzia mordoxka batean azaltzen zen; zinemaren trebatzen hasteko adina esperientzia eman zion lan hark.

«Akabo bakea!», pentsatu omen zuen Mikel Garmendiaren emazteak senarrak aktore izateko asmoaren berri eman zionean. 1982. urtean, egia esan, ez zuten bake handirik izan. Antzertiko lanez eta aipatu bi filmez gain, hirugarren bat ere egin zuen urte hartan: 1985ean *My beautiful Laundrette* filmari esker sekulako arrakasta lortu zuen Stephen Frears britainiarrek zuzendutako *The hit*. 1984. urtean estreinatu zen gangster eta mendeku kontu hartan John Hurt, Tim Roth, Terence Stamp edo Fernando Rey lehen mailako aktoreen ondoan ibili zen Mikel, *Euskal Herriko tabernariarena* egiten, inguruan Karlos Zabala, Eneko Olasagasti, Patxi Barco edo Xabier Agirre *Euskal Herriko gazteak* zituela. Antzerki eskolan eta diru apur bat etxeratzen laguntzen zioten lanetan jarraitzen zuen Mikel Garmendiak bizitzak *casting*-ik zorrotzena baino proba gogorragoa ekarri zion unean.



Arelkino, bi nagusiren zerbitzaria, Antzertik ekoitzi zuen aurreneko muntaietakoa. Ezkerreko maskaratua Mikel da, Karlos Zabala eskuinekoa

1983an jarri zen estreinakoz kamera baten
aurrean, artean 110 kilotik gorako gizon puska
zela, Alfonso Ungriak zuzendutako
Albaniaren konkista filmean



Pedro Oleak zuzendutako *Akelarre* filmean,
Mary Carrilloren ondoan. Aurrenekoan bezala,
bigarren film honetan ere elizgizonarena
egitea egokitu zitzaion



Garai hartan oso ezezaguna zen eritasun batek jo zuen Mikel Garmendia 1984. urtean: legionelosisia. Bartzelonara egindako bidaia batean egin zuen topo zoritxarreko legionella bakterioarekin. Berrogei egun igaro zituen Zainketa Berezien Unitatean; erdiak, koman. Beste lau hilabete eman zituen erietxean, eta hantxe utzi zituen ia 60 kilo. Makal eta argal irten zen erietxetik, etxerako bidean. Akabo lanak bolada baterako, ia bi urte eman baitzituen etxetik apenas irten gabe harik eta egun batean mundura itzultzeko garaia zela erabaki zuen arte.

Estualdi hartatik onik atera bazen ere, bizi osorako ondorioak utzi zizkion gaixotasunak. Itxura aldatu zion erabat batetik, eta aktore batentzat horren



Heriotzaren ateetaraino eraman zuen eritasun larri baten ondorioz, zeharo aldatu zen Mikel Garmendiaren itxura fisikoa

tresna garrantzitsua den ahotsa ere bai, unerik larrienetako batean trakeotomia egin baitzioten arnasa hartu ahal izateko. Suspertu zen, baina jipoi latza jasotako gorputz hark atsekabe ugari emango zizkion hurrengo urteetan. Mikel Garmendia ez zen haatik kikiltzen erraza, eta bakterio bat baino gehiago behar zen haren adorea eta bizinahia moteltezeko. Aurreneko urratsak lodi egin zituenari, hortaz, argal zegoela iritsiko zitzaizkion arrakasta eta berak askoz gehiago estimatzen zuen jendearen maitasuna.

Hogei filmetik gora

Urte bakarrean hiru film errodatu ostean, ez zuen bolada batean zinemarekin harreman gehiagorik izan Mikel Garmendiak. Anjel Lertxundiren eskutik iritsi zitzaion zinemara itzultzeko aurreneko aukera. 1982an, Eusko Jaurlaritzak ematen zuen Jon Mirande saria lortu zuen Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* eleberririk. Handik pare bat urtera, arrakasta handia izandako eleberririk film bilakatzeko bidean jarri zuen Jaurlaritzak berak, Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* eta Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*-ekin egingo zuen bezala. 1985ean estreinatu zen *Hamaseigarrenean aidanez* izan zen, alegia, euskaraz egindako aurreneko filma. Imanol Uribe zen lan hura zuzentzekoa, baina azken momentuan Lertxundiri berari egokitu zitzaion ardura. Felipe Barandiaranek eta Kontxu Odriozolak egin zituzten rol nagusiak, Domingo eta Martzelina, eta Mikel Garmendiak Korneliorena egin zuen, zineman egokitu zitzaion izen berezidun aurreneko pertsonaia. Segituan nabarmendu zuten kritikariek Garmendiaren lana. Jose Angel Rebolledoren *Fuego eterno* edota Javier Aguirrereren *El polión de Ulises* filmetan ere hartu zuen parte urte haietan, baina zain zeukan benetako fama emango zion estreinako pertsonaia: Anjel Lertxundik berak idatzi eta zuzendutako *Kareletik* filmeko Balantxas mozkortia, Mikel Garmendiak zineman egin zuen lanik bikainenetakoa. 1987an estreina-



Balantxas mozkortia, Anjel Lertxundik zuzendutako *Kareletik* filmeko pertsonaia ahanztezina



Nork ez du gogoan Karlos Zabala eta Eneko Olasagastiren *Maité* film arrakastatsuko Txomin?

tutako pelikulan egindako lanagatik, aktore onenari emandako saria jaso zuen urte berean Cartagenako Zinema Jaialdian. Ana Díezen *Ander eta Yul* (1988); Ernesto Telleriaren *Eskorpion* (1988); Antonio del Realen *El río que nos lleva* (1989); Alfonso Arandiaren *El anónimo...*



El polizón de Ulises (1987), Javier Aguirrek zuzendu zuen. Mikel, Ana Mariscal, Imperio Argentina eta Aurora Bautistaren artean

¡vaya papelón! (1990); Jose Antonio Zorrillaren *Invierno en Lisboa* (1990); Pedro Olearen *La leyenda del cura de Bargota* (1991); Jose Mari Tuduriren *Santa Cruz, el cura guerrillero* (1991); Koldo Izagirreren *Offeko maitasuna* (1992) eta beste zenbait film azaltzen dira Mikel Garmendiaren filmografian. Rol txikiak, gehienak, antzerkiarekin eta telebistaren uztartzen zituenak.

Iristear zegoen, Balantxasena egin eta ia hamar urtera, Mikel Garmendiak zineman egin-dako rolik arrakastatsuenetakoa: aspaldiko lagun eta lankide zituen Eneko Olasagasti eta Karlos Zabalak zuzendutako *Maité* 1994ko filmean egin zuena alegia. Habanan filmatutako komedia erromantiko hartan ere ez ziztaion protagonistarena egitea egokitu baina,

protagonista guztien baimenaz, Txomin angula zaintzaile erretxinaren eta Obdulio (Idelfonso Tamayo) patxadatsuaren arteko sesio gogoangarriek makina bat algara eragin zituzten Atlantikoaren alde bietan.

Juanma Bajo Ulloaren *Airbag-en* (1996) zituena segundo urriei ere sekulako etekina atera zien Mikelek. Hamarkada haren azken urteetan Joaquín Trincadoren *Sálvate si puedes* (1994), Rafael Moleónen *Cuestión de suerte* (1996) eta Olasagasti-Zabala bikoteak zuzenduriko *Sí quiero* (1999) filmetan arituzen Mikel Garmendia. 2001. urtean Manuel Gutiérrez Aragónen *Visionarios* filmean egin-dako rol txikiaren ondotik, zinemarako egin zuen azken lana Carlos Juárezzen *Pa tí pa siempre* film laburra izan zen, 2003. urtean.

Antzerkia, beti

Taula gainean zabaltzen omen du talentua interpretaziorako gaitasuna daukanak, eta disimulurako aukera handirik eskaintzen ez duen oholtzan uzten omen ditu agerian muga eta ezintasun guztiak horretarako jaiotzen denak. Antzerkia izan zen Mikel Garmendiaren interpretazio eskola, eta antzerkiak eman zizkion sakoneko poztasun profesional handienak.



Aita-semeak, izen berekoak biak, herriko jaietan

Ezusteko handientxoena ere antzerkiak ekarri zion, haatik. Bere karreraren zehar nahigabe handirik izan ez bazuen ere, artean eritasunaren ondorio larrienak gainditzen ari zela pairatu zuen nagusietako bat. Mikelik gabe bazen ere, aurrera jarraitzen zuen Antzertik, arrisku handiko proiektu batean murgilduta. August Strindberg (1849-1912) suediarra 1900ean idatzitako *Dödsdansen* antzezlanaren prestatzen ari zen: heriotza saihestea ezinezkoa dela gogorarazten digun Erdi Aroko alegoriar oinarritutako *La danza de la muerte* obra.

Borroka gogorraren ostean, musu-huts utzi berria zuen Herio Mikel Garmendiak. Lluís Sola idazle eta antzerki zuzendari kataluniarra prestatzen ari zen antzezlanean aritzeagatik lortuko zuen soldata baino arrazoi sakonagoak izango zituen, seguruenik, egitasmo hartan parte hartzeko irrikitan egoteko. Aurrez aurre ikusi berri zuenaren trazak aurpegitik eta gorputzetik guztiz ezabatu gabe abiatu zen Vic herrira, Solaren jaioterrira, probak egitera. Hartu zuten, Kontxu Odriozola, Aitzpea Goenaga eta Isidoro Fernandezekin batera. Gaztelaniazko *La danza de la muerte* ez ezik, Bernardo Atxagak prestatutako euskarazko bertsioa ere muntatu zuten, *Herio dantza*. Ez batak ez besteak ez zuten espero zitekeen arrakasta lortu. Kolpe gogortxo izan zen hura, taula gainera egokitu zitzaion pertsonaia baino zerbait gehiago eraman zuen aktore biziberrituarentzat...



Jaroslav Hasek idazle txekiarrak sortutako Schwejk soldaduaren gorabeherak taularatu zituen 80ko hamarkadaren erdialdera

Aurreneko porrotean errenditzen den akto-reak ez du bide luzerik egingo. Mikel ez zen errenditu, eta antzerkiaren inguruko lanetan jarraitu zuen. Antzerti-ri atxikitako lanen ondotik, han ibilitako zenbait aktore euren kabuz hasi ziren muntaiak prestatzen, 80ko hamarkadaren bigarren erdialdera. Besteak beste, gaztelaniaz eta euskaraz eman zuten Woody Allenek urte batzuk lehenago idatzitako eta antzerkian interpretatutako *Aspirina para dos*, zinemara ingelesez eta gaztelaniaz hurrenez hurren *Pay it again*, *Sam* eta *Sueños de un seductor* izenburuez eramandakoa: Humphrey Bogartena egin zuen Mikelek. Jaroslav Hasek idazle eta kazetari txekiarrak amaitu gabe utzitako *Las aventuras del valeroso soldado Schwejk* militarismoaren aurkako aldarri zorrotza ere taularatu zuten, Bertolt Brechtek moldatutako bertsioan oinarriturik. Peter Shaffer idazle eta gidoigile britainiarraren *Equus* antzeztu zuten, halaber, garai hartan. 1988an, Brian Friel irlandarraren tes-



Jose Kruz Gurrutxagarekin batera, *Uztailaren laua*, *Renon* antzezlana entseatzeko, 2000ko abenduan. Huraxe izan zen antzerkirako egin zuen azkeneko lana

tuetan oinarritutako *Agur Eire...* *agur* estreinatatu zuten Tanntaka eta Topo taldeek, Pere Planella zuzendari zela, eta hantxe ibili zen Mikel Garmendia.

Lan horien ondotik iritsiko zen kultur eta gizarte fenomeno maila erdietsiko zuen arrakasta: *Ama begira zazu* antzezlana. 1986 aldera, lanik gabe zeuden elkar Antzertin ezagutu zuten Kontxu Odriozola eta Elena Irureta. Elkarrekin idatzi zuten *Ama begira zazu*, etxeko eta kaleko euskara antzokietara umore giroan eraman zuen aurreneko lana, ondotik etorri diren beste saio arrakastatsu ugariaren aitzindaria. Lagun artean moldatu zuten ikuskizuna: Eneko Olasagasti zuzendari, Jose Ramon Soroiz eta Mikel Garmendia aktore, Kontxu eta Elenarekin batera. Oholtzan, eguneroko pasadizo xebreak erritmo bizkor-bizkorrean interpretatzen zituzten hogeitik gora pertsonaia. Publikoari gordetako eserlekuetan, algara franko...

Errezilgo Loidi Azpi baserrian egin zuten, 1989an, aurreneko saioa, familia giroan, ikusleak auzokoak eta lagunak zirela. Aurreneko azterketa gaindituta, Zestoan egin zuten segituan hurrengo emanaldia, askoz ere jende gehiagoren aurrean. Urtebetean, berrehundik gora emanaldi eskaini zituzten, antzoki handietan zein batere antzokirik gabeko herri txikietan. Arrakasta izan zuen beti lagun eskal antzerkigintzan zedarri izan zen lan hark.

90eko hamarkadaren aurreneko urteetan ez zen askorik aritu antzerkian Mikel Garmendia. Urte haietantxe sortu zen antzerkia sustatzeko beste ahalegin publiko bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri zuen Arteszena Gipuzkoako Antzerki Publikoa. Jardunean

pare bat urte egin zituen proiektua Maribel Belastegik eta Fernando Bernuésék zuzendu zuten, eta Arthur Schnitzler-en *La Cacatúa Verde* izan zen, 1993. urtean, konpainiaren aurreneko ekoizpena. Hantxe zen Mikel, Mario Gasen zuzendaritzapean.

Ama begira zazu arrakastatsua izanda ere, are arrakastatsuagoa gertatu zen Mikel Garmendiak antzerkian egindako azkeneko lan handia: marka guztiak txikitu dituen *El florido pensil*. Andres Sopeñaren izenburu bereko liburuan oinarrituta, 1996ko otsailaren 23an estreinatu zuen Tanttaka konpainiak Franco-ren garaiko eskola nazional-katolikoa eta gizartea umorearen bahea erabilita erakusten duen antzezlan. Hamar urte daramatza an-



El florido pensil antzezlanean ere sotana jantzi behar izan zuen

tzokiz antzoki Fernando Bernuések eta Mireia Gabilondok zuzendutako lanak.

Ordurako *Goenkale* telesailean erabat murgilduta eta lanpetuta zebilenez, Mikelek etxetik gertu eskaintzen ziren emanaldietan hartu zuen soilik parte. Hartara, ezin izan zituen Madrilan, Buenos Airesen, Parisen eta beste hainbat tokitan jotako txaloak entzun.

Donostiako Antzoki Zaharrear estreinatua zuen azkenekoz antzezlan bat Mikel Garmendiak, 2000. urteko abenduaren 21ean. Donostia Hiria antzerki saria irabazitakoa zen Javi Cilleroren *Uztailaren 4a Renon* antzeztu zuen, Juan Cruz Gurrutxaga aktore gaztearekin batera, Aitzpea Goenagaren zuzendaritzapean. Emanaldi gutxi batzuk baino ez zituen eskaini. Osasuna ere, ordurako, hasia zitzaion okertzen Mikel Garmendiari.

Goenkale eta beste

1983arekin batera Euskal Telebista sortu zenean, Antzertin zebilen buru-belarri Mikel Garmendia, baita zinemarako aurreneko lan txoetan ere. Telebista jaioberriak, artean, ez zeukan aktoreentzako lan askorik. Bai, ordea, artista-bizimoduarekin zerikusi handirik ez zeukan HABEk. Helduen alfabetatze eta euskalduntzerako baliabide modura *Bai Horixe!* izeneko saio labur sorta sorrarazi zuen. Juan Manuel Gutierrezek zuzendutako programatxo haiek primerako eskola izan ziren Antzertin zebiltzan ikasleentzat. Ikasitakoa praktikatzeko eta eskarmentua hartzeko ez ezik, etxera sos batzuk eramateko ere balio zien lan hark.

Euskaltegietatik telebistara igaro zen saioa, eta orduantxe hasi ziren ezagunak egiten pu-



Euskal Telebista aurreneko saioak eskaintzen hasi zenean ume zirenek gogoan izango dute seguruenik Polonio

bliko zabalarentzat Mikel Garmendiarekin batera hasitako aktoreen aurpegiak, berea barne, gehienek hartu baitzuten parte ekimen hartan. Telebista bera berehala hasiko zen, euskarazko fikzioa medio, aktoreei lanerako aukerak eskaintzen. Ez dago ahazterik zein ezaguna egin zen ia estreinakoz telebista euskaraz ikusteko aukera zuten neska-mutikoen artean Mikel Garmendiak *Banan-banan* saioan egiten zuen Polonio pertsonaia.



Goenkale telesaileko Joxe Mari Lasa, noski, «Boga-boga» tabernako nagusia

Beni eta Marini eta *Flamingo Berria* telesailetan ere aritu zen lanean Mikel Garmendia. 1991n, sekulako arrakasta izan zuen Eneko Olasagastik eta Karlos Zabalak zuzendutako *Bi eta bat* telesailak. Jose Ramon Soroiz *Joxe Lontxo*, Elena Irureta eta Ane Gabarain ziren hirukote protagonista, baina Mikel Garmendiak eta Xabier Agirrek osatzen zuten er-tzain bikotea ere ez zen oharkabean joan publikoarentzat, ezta gutxiago ere. Garai hartan «share»ak egun duen garrantzia ez bazuen ere, batez beste 36.000 ikusle erakartzen zituen egunero telesailak. Bikoiztu egingo zuen handik urte gutxira aipatu ikusle kopurua Eneko Olasagastik berak zuzendutako *Jaun eta jabe* telesailak. Eta, Joxean Arizkorreta lehendakaria (Jose Ramon Soroiz), haren emazte Blanca (Elena Irureta) eta gainerako izen berezidun pertsonaien artean Mikel Garmendia, maiordomo bilakaturik...

Azkenean, goitizen bilakatuko zitzaion izena ez ezik, abizena ere izango zuen Mikel Garmendiak Euskal Telebistaren aurreneko katea 1994-95 emititzen hasi zen *Goenkale* telesailean: Joxe Mari Lasa, Boga tabernako jabea, Maria Luisaren (Kontxu Odriozola) senarra, Martin Lasaren (Jose Ramon Soroiz) anaia. *Goenkale*-n zebilela, *Maité* filmean oinarritutako izenburu bereko telesailean hartu zuen parte Mikelek, eta Estatu mailako telesailen batzuetan ere egin zuen agerpen laburren bat, nahiz eta ez den izan, urte jakin ba-



Bi eta bat telesailko ertzainak, bigarren mailako rolak izan arren, berehala erakarri zuen ikusleen arreta

tzuetan eta zineman ez bada, Euskal Herritik kanpoko proiektu askotan ibilitako aktorea.

Osasun arazoek utzi zioten artean izan zen Bogako Joxe Mari Mikel Garmendia. Eta lan hari esker erakutsi zion publiko zabalari ez zela soilik irria eta barrea eragiten zekien aktorea, beste era bateko lanetan ere baze kiela nabarmentzen. Zera zioen Mikel Garmendiak lan hartaz: «Alde onak eta txarrak ditu. Jendeak kalean gelditu eta betiko galderak egiten dizkizu; eta batzuetan asper-solas luzeekin etortzen zaizkizu. Baina, bestalde, zure lanaren onespena ikustea pozgarria izaten da, Joxe Mariri eskertua nago ni».

Lorpenen sekretua

Badira lorpenak sari eta ohoretan neurtzen dituzten aktoreak. Mikelek, bere karreraren, lan zehatz bati atxikitako bi sari eskuratu zituen. *Kareletik* filmean egindako lanagatik Cartagenako jaialdian eman ziotena eta *Goenkale*-n egindakoagatik 1998an eskuratu zuen Iparragirre saria. 2001. urtean, euskaraz egindako antzerkiaren alde lan egiten dutenei eskainitako omenaldia jaso zuen Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan, eta omenaldi haren kariaz argitaratu zen, Pako Aristik idatzia, Mikelen ibilbidea marrazteaz gain haren hitz eta adierazpen ugari biltzen dituen liburua. 2004ko abenduan, ETBk Gabon gauean eman zuen *Olentzero begi gorri* ikuskizunaren baitan ere izan zen omendua Mikel Garmendia, baina omenaldirik hunkigarriena hurbileko adiskideek eskaini zioten, 2005eko ekainean. Euskal Aktoreen Batasunak eman zion Besarkada saria jaso zuenekoan izan zuen azken agerpen publikoa handik aste gutxira agertokitik betiko irtengo zen Mikel Garmendiak.

Jasotako sariak erakusteko ez zuen armairu handirik behar Mikel Garmendiak, baina arrakastaren neurria inguruan izan ditugunen oroitzapenek eta maitasunezko hitzek ematen badute, ez da munduan Mikelek behar harko zukeen armairuaren tamainakoa egiteko gai den arotzik. Mila anekdota dauzkate kontatzeko Mikel Garmendia ondo ezagutzen zutenek, milioika hitz samur. Kostako

zaio askori, haatik, Mikelek berak hitzak josten zeukan trebezia-mailara heltzea. Hartu lau hitz, jarri elkarren ondoan eta hortxe, txiste errazaren orde, luxuzko hitz jokoa. Hartu testu bat, luzea izanda ere ikasi buruz ziztu batean, azaldu proba egin behar zioten tokira, eta lana biribildu. Batere garrantzirik izango ez balu bezala, natural, berezko, apal.

Apaltasuna da, hain zuzen, Mikel Garmendia ondo ezagutzen dutenek gehien aipatzen duten ezaugarrietako bat. Ezaugarri kontraesankorra, agian, harrotasun puntu bat ere behar duen ogibiderako jaioa zen norbaitengan. Eskuzabaltasuna ere ezinbestean gehitu behar zaio Mikel Garmendiaz aritzerakoan gehien entzuten diren hitzen zerrendari. Gainerakoen beharrak bereen aurretik. Galderarik egin gabe eta konturik eskatu gabe. Etxean behar zena bere ustez behar handiagoan zegoen beste norbaiten esku jartzen zuen bezalaxe betetzen zituen opariz etxe-koak. Horixe bere ilusioa. Adorea eta indarra, berrogei urteak gertu zituela bizimodu iraultzeko eta eritasunari eta makalaldiei behin eta berriro aurre egiteko. Lozorroan zegoela zirudienean, detailerik galtzen ez zuen begirada zorrotza. Hizketarako eta aurrez aurreko harremanetarako aparta, baina makina berriekin-eta aldrebesa. Segituan bertzen zitzaion gogo gustukoa zuen zerbaiten aurrean. Derrigor egin behar zuenak, ordea, ume-umetatik uzten zuen hotz. Aldabera gaiza batzuetarako, inor baino saiatuagoa



Xabier Euskitzeren eskuetatik jaso zuen Iparragirre saria

benetan gogoko zituenetarako. Nahiago kontu argiak endredatuak baino, sukaldean izan ezik. Sukaldean, maisuen mailan moldatzen zen tokian, arrainik freskoena beti eta errezetak ahalik eta konplikatuenak. Lasaia eta neurritz kanpoko komeriarik gabea lanerako: azaldu, antzestu eta kito. Gozatu eta goza arazi. Jendearen miresmen eta maitasun adierazpenen aurrean, gezurrezko apaltasunik ez. Gogoko zituen, eta ume ilara luzea

autografo eske bazetorkion ere ez zuen alde egingo denak sinatu arte. Edo bai, agian, baina inor mindu gabe.

Han-hemenka hartutako osagaiez eraiki ohi dituzte antzezten dituzten pertsonaiak zenbait aktorek. Beste era batera egingo zuen seguru aski Mikel Garmendiak, berea baino ez zen metodoaren arabera, baina han-he-

menka hartutako printzak baino osagai ego-kiagorik ezin aurkitu ñabardurarik gabeko sailkapen lauen kutxa estuan sekula kabituko ez den gizona —aktorea, senarra, aita, aitona, lankidea, laguna, anaia...— nolakoa zen azaltzen saiatzeko, nahiz eta ondotxo jakin ezinezkoa dela Mikel Garmendia horren ezohiko eta berezi bilakatu zuen sekretua argitzea.



2005eko ekainean, *Besarkada* saria eman zioten lankide baino areago adiskide zituen aktoreek. Ramon Agirre eta Jose Ramon Soroizekin, benetan hunkigarria izan zen ekitaldian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mikel Garmendiaren familiakoei: Regina Fernández Botella emazteari, Edurne eta Mikel seme-alabei eta Maixabel Garmendia arrebari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2476-2
84-457-2478-9

L.G.: BI - 2747-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística